Ordiziako Udala

2023ITGB0002

Ordizian, **2023ko otsailaren 23a**, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

*En Ordizia, siendo el día **23 de febrero de 2023** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garciandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Arantxa Fernandez Alvaredo | EAJ-PNV |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA**

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

**BESTELAKO BERTARATZEAK ETA FALTA DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

1. 2023ko otsailaren 2ko ohiko bilkurako akta zirriborroa onartzea.

2. Zenbait txosten eta eskaera.
   - Merkataritzako bonoen kanpainako informazioa
   - Delegazioetako aktak

3. Galde-eskeak.

***ASUNTOS TRATADOS***

***ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:***

*1. Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 2 de febrero de 2023.*

*2. Informes y solicitudes varias.*
   - *Información de la campaña de bonos de comercio.*
   - *Actas de delegación*

*3. Ruegos y preguntas.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

.- Eraispen baimen eskaera, Iturtxo bidea 6an kokatutako eraikina (2021OBMH0015), 2023ko otsailaren 23ko Tokiko Gobernu Batzarraren gai-zerrendan barneratzeko:

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamenaren presazkotasuna aho batez onartutzat jo du.**

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan** **AMAIERA ORDUA: 14:17etan**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2023ko otsailaren 2ko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2023ko otsailaren 2ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

***1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 2 de febrero de 2023***

*Propuesta*

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 2 de febrero de 2023***

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 5 (EH-BILDU ORDIZIA 2, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- Eraispen baimen eskaera, Iturtxo bidea 6an kokatutako eraikina**

**2.- Solicitud de licencia de derribo de edificio sito en Iturtxo bidea nº.6**

***PROPOSAMENA – PROPUESTA***

- LARRAIN S.Lren izenean eta ordezkari gisa Aitor Abaunz Colina-k eskatuta izapidetutako espedientea, ITURTXO BIDEA 6. zenbakian dagoen eraikina eraisteko baimena eskatuz Horretarako honako hau aurkeztu du: “Ordiziako Iturtxo bideko 6. zenbakian dagoen eraikina eraisteko proiektua” Bizkaiko Industri Ingenierien Elkargo Ofizialegatik bisatua, 00009/2023, 2023/01/11n. S.E. A/23-0201, 2023/01/13.

- *El expediente tramitado a instancias de Aitor Abaunz Colina en representación de LARRAIN S.L. para derribo del edificio sito en ITURTXO BIDEA Nº 6. Para ello presenta: “Proyecto de demolición del edificio situado en el nº 6 de Iturtxo Bidea de Ordizia”, Visado por el Colegio Oficial de Ingenieros Industrailes de Bizkaia–0000/2023 en fecha, 11/01/2023 - RE A/23-0201, 2023/01/13.*

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren 2022ko ekainaren 29ko Ebazpena, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentariotik kanpo uzten duena partzela.
- 2023ko otsailaren 2an (SE A/23-00683), Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren ebazpena aurkeztu zen, Ordizian (Gipuzkoa) 20076-00015 inbentariatutako lurzatiaren industria-aurriaren saneamendu-azterlanean jasotako hondakinak kudeatzeko, eraikuntza-elementuak garbitzeko eta eraispenari eragozpenik ez jartzeko jarduerak baimentzeko dena.
- El informe del responsable de servicios municipales y ordenación y gestión del tráfico del Ayuntamiento de fecha 8 de febrero de 2023.
- El informe técnico de la arquitecta municipal de fecha 22 de febrero de 2023.

**PROPOSATZEN DUT:**

**LARRAIN S.L.-ri** eskatu duen eraispen baimena ematea, ondorengo baldintza hauek betetzekotan:

**BALDINTAZA ESPEZIFIKOAK**:

✓ Ingurumen organoak (RE A/23-00683, 2023/02/02) hondakinak kudeatzeko, eraikuntzaelementuakgarbitzeko eta Iturtxo 6ko eraikina eraisteko jarduerei buruz emandako Ebazpenarekin bat etorriz, honako baldintza espezifiko hauek ezartzen dira.

1. Materialak eta hondakinak kentzeko lanei eta eraikinak eraisteko saneamenduari etengabeko ingurumen-jarraipena egin beharko

- *La Resolución del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, por la que se excluye a la parcela del inventario de suelos con actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo" de fecha 29 de junio de 2022.*
- *La Resolución presentada en fecha 2/02/2023 (RE A/23-00683).del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco de Autorización de las actuaciones de gestión de residuos, limpieza de elementos constructivos y no objeción a la demolición, recogidas en el "Estudio de Saneamiento de la ruina industrial de la parcela inventariada 20076-00015 en Ordizia (Gipuzkoa).*
- *El informe del responsable de servicios municipales y ordenación y gestión del tráfico del Ayuntamiento de fecha 8 de febrero de 2023.*
- *El informe técnico de la Arquitecta Municipal de fecha 22 de febrero de 2023.*

***PROPONGO:***

*Conceder a **LARRAIN S.L.** la licencia de derribo que solicita, condicionada cumplimiento de los siguientes extremos:*

***CONDICIONES ESPECIFICAS:***

✓ *De conformidad con la Resolución del órgano ambiental (RE A/23-00683, 2023/02/02) referido a las actuaciones de gestión de residuos, limpieza de elementos constructivos y no objeción a la demolición de la edificación de Iturtxo 6, se establecen las siguientes condiciones específicas.*

1. *Los trabajos de retirada de materiales y residuos, así como el saneo para la posterior demolición de los edificios, deberán someterse a un seguimiento*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

die egiaztatutako erakunde batek.

2. Aurreikusitako eraispena egin aurretik eta egin beharreko hondakinen kudeaketari eta eraikinen saneamenduari buruzko lan guztiak amaitu ondoren, udal honi aurkeztuko zaizkio ingurumen-organoak eskatutako ziurtagiria eta dokumentazioa eta organo horretan aurkeztu izanaren justifikazioa. (Ingurumen-kontrolaz arduratzen den erakunde egiaztatuaren ziurtagiria jarduera horiekin ados dagoela adierazten duena, eraispenproiektua erantsita, segurtasun- eta osasun-azterlan edo planekin eta hondakinak kudeatzeko planekin batera. Era berean, eraisteko aurreikusitako data eta eskatutako gainerako dokumentazioa).

✓ Udal zerbitzuen arduradunaren eta Udaleko trafikoa antolatzeko eta kudeatzeko arduradunaren iritzien arabera:

3. Obrak egiterakoan, Udaleko trafikoa antolatzeko eta kudeatzeko arduradunek ezarrikodituzten baldintzak errespetatu beharko dira

*ambiental continuado por parte de una entidad acreditada.*

2. *Previamente a la demolición prevista y una vez terminados todos los trabajos relativos a la gestión de residuos y saneo de edificios a ejecutar, se presentará ante este Ayuntamiento el certificado y documentación solicitados por el órgano ambiental y la justificación de su presentación en dicho órgano (Certificado de la entidad acreditada encargada del control ambiental mostrando su conformidad con dichas actuaciones, adjuntando el proyecto de demolición, junto con los estudios o planes de seguridad y salud y de gestión de residuos correspondientes. Asimismo, la fecha prevista para la demolición y demás documentación requerida).*

✓ *De conformidad con las consideraciones del responsable de servicios municipales y el responsable de la ordenación y gestión del tráfico del Ayuntamiento:*

3. *Las obras deberán desarrollarse respetando los condicionantes que vayan a establecerse por parte de los responsables de la ordenación y gestión del tráfico del Ayuntamiento en el proceso de ejecución de las mismas.*

**BALDINTZA OROKORRAK:**

- **<u>Honako agiri hauek ekarri beharko dituzte obra hasi aurretik:</u>**

a) Obrako zuzendari fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko da.
b) Aseguru-polizaren egiaztagiria (kopia), mugakide diren etxeetan, ondasunetan eta pertsonetan eragindako kalteei aurre egiteko dena
c) Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko

***CONDICIONES GENERALES:***

- ***Previo al inicio de obra se deberá presentar en estas dependencias:***

*a) La notificación del nombramiento de la dirección facultativa de la obra.*
*b) El justificante (fotocopia) de la póliza de seguro, que cubra los riesgos de daños a edificios colindantes, bienes y personas.*

*c) La fianza requerida en el Decreto*


Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza, **58.476,40** eurokoa.

d) **25.000 euroko** fidantza aurkeztuko du, eraispeneko lanetan urbanizazioari eragin ditzakeen kalteak konponduko direla bermatzeko.
Bermearen zenbatekoa Udalak duen kontu zenbakian jarri beharko da **obrak hasi aurretik**, kontu zenbakia hau da: ***Kontu kia: 20955073041060024857***

*112/2012 de 26 de junio del Gobierno Vasco, por la cantidad de 58.476,40 euros.*

*d) Presentará una fianza de **25.000 €** para garantizar la reparación de los daños que pueda ocasionar a la urbanización durante el derribo. Dicho importe deberá depositarse **previo al inicio de obra** en la cuenta del Ayuntamiento de Ordizia.*
***Nº Cta.: 20955073041060024857***

- **Obrek irauten duten bitartean kontuan hartu beharko da.**

1. Obra eremua hormigoizko hormekin babestu beharko da , era horretara inguruan sortu ahal diren eragozpenak gutxituko direlako eta, gainera errepideen itxiera soilik puntuala izango delako.
2. Obra horiei ekin aurretik, egunaren eta orduaren berri eman beharko zaio Bulego Teknikoari eta Gipuzkoako Urak-i, horrela udal zerbitzuek babestu egingo dituzte eraispen lanek eragin ditzakeen izaera orokorreko instalazioak.
3. Eraispen lanak dirauten bitartean, mahuka bat eduki beharko da, kontagailuarekin eta gutxieneko ebakidurarekin (∅ 45 mm/mm), hondakinak garbitzeko eta horrela, harrotutako hautsak sortutako eragozpenak arintzeko.
4. Enpresak bere langileak baliatu beharko ditu obrak irauten duen bitartean segurtasuna bermatzeko.
5. Eraispen fase honetan jarduera eremua behar bezala seinaleztatu beharko da eta Udaltzaingoarekin kontrastatu beharko da.
6. Hesiak jartzeko Udaltzaingoaren jarraibideak bete beharko dira.

- ***Durante las obras deberá tenerse en cuenta:***

1. *Se cerrará la zona de obras con muros de hormigón, así se minimizarán las afecciones que puedan generarse en el entorno, además el cierre de la carretera sólo será puntual.*
2. *Previo al comienzo de estas obras, se comunicará el día y la hora a esta Oficina Técnica y a Gipuzkoako Urak a fin de que los distintos servicios puedan neutralizar aquellas instalaciones de carácter general que puedan verse afectadas por el derribo.*
3. *Mientras se realizan las labores de derribo, se dispondrá de una manguera, con contador, de sección suficiente (∅ 45 mm) a fin de poder regar los escombros y paliar así las posibles molestias que se puedan ocasionar por el polvo desprendido.*
4. *Se deberá disponer personal propio que pueda garantizar la seguridad durante el transcurso de la obra.*
5. *El ámbito de actuación en esta fase de derribo, deberá ser señalizado adecuadamente y contrastado con la Policía Municipal.*
6. *La colocación del vallado se coordinará con la Policía Municipal.*

7. NTE-ADD Eraispenak eta bat datorren gainerako Araudian ezarritakoa hartu beharko da kontuan.
8. Argiteria publikoaren funtzionamendua denbora guztian bermatu beharko da eta horretarako hartu beharreko neurriak har beharko dira.
9. Inguruko kale guztiak eta bere urbanizazioak, eraispenak irauten duen bitartean eta baita gero ere, segurtasun eta sendotasun baldintza onenetan geratu beharko du.
10. Eraispen lanei ekin aurretik, arratoiak akabatzeko enpresa batekin jarriko dira harremanetan, eraikina horiengandik babesteko.
11. Obra seinaleztatu eta babesteko behar diren baliabide guztiak izango ditu enpresak, eta Udaltzaingoaren eskura jarriko ditu hala behar dituztenean.
12. Proiektuan azaldutako segurtasun, babes eta higiene neurri guztiak hartuko dira, baita gai horri buruz indarrean dauden ordenantza eta araudiak betetzetik eratorriak ere, uneoro eraikin eta mugakide diren instalazioen sendotasun eta segurtasuna bermatu beharko da.
13. Eraisteko hiri-altzariak kendu behar badira, sustatzailearen kontu izango da,eta obrak amaitzean berriro ipini beharko ditu behar bezala utziz.
14. Obrak bukatutakoan, dagokion Obra Bukaerako Ziurtagiria aurkeztu beharko da.
15. Hiri-bidea etengabe garbi mantenduko dela bermatu beharko da.
16. Alboko eraikinei kalterik ez egiteko beharrezko neurriak hartu beharko

*7. Se tendrá en cuenta lo establecido en las NTE-ADD Demoliciones y demás Normativa concordante.*

*8. Se deberá garantizar el funcionamiento del alumbrado público en todo momento en la zona de afección, debiendo tomar las medidas necesarias para ello.*

*9. Toda la vía pública circundante y su urbanización, mientras y después de completar el derribo deberá quedar en óptimas condiciones de seguridad y solidez.*

*10. Días antes del comienzo del derribo, se contactará con una empresa de desratización, a fin de tratar el edificio contra roedores.*

*11. La empresa dispondrá de todos los medios necesarios para señalizar y proteger la obra, los cuales pondrá a disposición de la Policía Municipal en caso de necesidad.*

*12. Se adoptarán todas las medidas de seguridad, protección e higiene contempladas en el proyecto, así como las derivadas del cumplimiento de las ordenanzas y normativa vigentes en la materia, garantizándose en todo momento la estabilidad y seguridad de edificios e instalaciones colindantes.*

*13. Si para el derribo es preciso retirar parte del mobiliario urbano, será por cuenta del promotor, debiendo restituir el mismo en perfectas condiciones una vez acabadas las obras.*

*14. Finalizadas las obras, se expedirá el correspondiente Certificado Fin de Obra.*

*15. Se deberá garantizar que el vial urbano se mantendrá permanentemente limpio.*

*16. Deberán adoptarse las medidas necesarias para evitar afecciones a*

dira.

- **Gainera, honako hauek ere gogoan izan beharko dira:**

a) Obrek irauten duten bitartean, seinaleztapen-, babes- eta segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, istripurik gerta ez dadin. Bideek nahiz espaloiek, bertatik ibiltzeko moduan eta babestuta egon beharko dute Udaltzaingoaren jarraibideak betez; era berean, kaleak moztu eta bere seinaleak ipintzerakoan, beraien jarraibideak bete beharko dira.

b) Obren kontratista esleipendun guztiek egunean izango dituzte Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

c) Lan guztiak egiteko, oinezkoen eta langileen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz egingo dira.

d) Laneko Osasuna eta Segurtasunari buruz indarrean dauden Lege-Arau guztiak beteko dira, bereziki 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena; baita bere aldaketak, eta hauekin bat datozen xedapenak eta aplika daitekeen prebentzio arloko beste edozein arau ere.

e) Lanek dirauten bitartean, saihestu egingo da objektuak edo partikulak bide publikora jaurtitzea, eta neurri egokiak hartuko dira oinezkoek eta ibilgailuek kalterik ez jasateko.

*los edificios colindantes.*

- ***Asimismo, las obras deberán ejecutarse con observancia a las siguientes medidas:***

*a) Durante las obras, deberá tomar las medidas de señalización protección y seguridad necesarias para evitar accidentes. Manteniendo las aceras y viales transitables y protegidos, de acuerdo con la Normativa de la Policía Municipal. Asimismo, deberán seguir sus indicaciones para los cortes de calle y señalización de los mismos.*

*b) Todo contratista adjudicatario de las obras, estará al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.*

*c) Todos los trabajos se realizarán tomando las medidas necesarias para garantizar la seguridad de los peatones y trabajadores.*

*d) Se cumplirá con todas Normas Legales Vigentes sobre Salud y Seguridad en el Trabajo, en particular el Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción, la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y el Real Decreto 39/1997, de 17 de enero, por el que se aprueba el Reglamento de los Servicios de Prevención; así como sus modificaciones, disposiciones concordantes y cualquier otra norma de ámbito preventivo aplicable.*

*e) Durante los trabajos se evitará la proyección de objetos o partículas a la vía pública, tomando las medidas oportunas para evitar que los viandantes y vehículos se vean afectados por la caída de objetos.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

f) Obran AMIANTOA duten materialak agertzen badira, obra gelditu egin beharko da, eta martxoaren 31ko, 396/2006 Errege Dekretuaren arabera kudeatuko dira, AMIANTOAREN eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.

- **Gainera, honako hauek ere gogoan izan beharko dira:**
  1. Obrak egiteko ordutegia, goizeko 8etatik gaueko 8etara izango da lan-egunetan eta goizeko 8etatik eguerdiko 2etara jai-bezperetan. Jaiegunetan ezingo da lanik egin.
  2. Obrak baimena eman eta 3 hilabeteren barruan hasi beharko dira. Bukatu, berriz, 6 hilabeteko epean bukatuta behar dute. Gehienez hilabetez eten daiteke obra. Epe horietako edozein beteko ez balitz, baimena iraungita geratuko litzateke.
  3. Bide-seinale alternatiboak behar badira, euskaraz eta gazteleraz egingo dira. Eta euskara hutsez idatziko dira, berriz, bi hizkuntzetan antzeko grafia duten hitzak eta esamoldeak edota piktogramen bidez egiten direnak (Euskararen erabilera normalizatzeko ordenantzaren 18. artikulua). Udalak itzulpenetarako doako zerbitzua ematen du: 943805622.

- **Obrak bukatutakoan, dagokion Obra Bukaerako Egiaztagiria aurkeztuko da.**

Lizentzi hau eskuratzeko aurretik udal zergak eta tasak ordaindu beharko dira.

*f) Si en la obra aparecen materiales que contengan AMIANTO, se deberá parar la obra y serán gestionados según el Real Decreto 396/2006, de 31 de marzo, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud aplicables a los trabajos con riesgo de exposición al AMIANTO.*

- ***Asimismo deberá tener en cuenta otras consideraciones:***
  1. *El horario permitido para ejecución de obras es de 8:00 horas a 20:00 horas los días laborables y de 8:00 horas a 14:00 horas los sábados. En días festivos no se podrán ejecutar.*
  2. *Las obras se iniciarán dentro del plazo de 3 meses a contar desde la expedición de su licencia y deberá ser finalizadas en su totalidad en el plazo de 6 meses. El plazo de interrupción máxima será de un mes. El incumplimiento de cualquiera de estos plazos supondrá caducidad de la licencia.*
  3. *Cuando sea necesaria la señalización vial alternativa, la misma se realizará en euskera y castellano, y se utilizará el euskera en caso de grafía similar en los dos idiomas así como en caso de anuncios que utilicen pictogramas / símbolos internacionales (Artículo 18 de la ordenanza de normalización del uso del euskera). Servicio gratuito de traducción del Ayuntamiento: 943805622.*

- ***Finalizadas las obras, se entregará el correspondiente Certificado Fin de Obra.***

*Esta licencia queda condicionada al previo pago de los correspondientes impuestos y tasas municipales.*



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Akordio hau doakionari jakinaraztea.

*Notifíquese el presente Acuerdo a las personas interesadas.*

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan. Ez da izan.

**Bozketa**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

Beraz, proposamena onartutzat jo da.

Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Zenbait txosten eta eskaera**

- **Merkataritzako bonoen kanpainako informazioa**

Maitane Alvarez zinegotziak abenduak 31rarteko kanpainaren datuen berri eman du.

***3.- Informes y solicitudes varias.***

- ***Información de la campaña de bonos de comercio.***

*La concejala Maitane Alvarez informa sobre los datos obtenidos de la campaña efectuada hasta el 31 de diciembre.*

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- Galde-erreguak**

Ez da izan

***4.- Ruegos y preguntas.***

*No se han producido*

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

*Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.*

| | |
|---|---|
| **Sinatzaileak** Firmantes | **ALKATEAK /** EL ALCALDE<br>Adur Ezenarro Agirre<br>**ORDEZKO IDAZKARIA 2022/1331 Dekretu bidez /** SECRETARIA POR SUSTITUCIÓN vía Decreto 2022/1331<br>Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave |
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet:<br>https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAEJNNT.RAal |



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus